

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratuari

Udalbatzak, 2020ko apirilaren 17an egindako aparteko osoko bilkuran, udal honen 2020ko aurrekontu orokor finkatuari hasierako onarpema ematea erabaki zuen, baita 2020ko aurrekontua gauzatzeko udal arauari ere.

Bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, aipatutako espediente hori 20 egun baliodunez izango da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Bat etorritz, halaber, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.1. artikuluan xedatutakoarekin, ohartarazten da behin betiko onetsizat joko direla udal honen 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratua eta 2020ko aurrekontua betearazteko udal araua, baldin eta epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Bastida, 2020ko apirilaren 20a

*Alkatea*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**